



ostiko bidaiari

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure taldeak, Ostiko taldeak, aisialdi leku berriak sortzea du helburu eta, aurrerago aipatu dugun bezala, gazteontzat bereziki bideratutako zerbitzu bat sortuko dugu, baina edozein izan daiteke gure bezero; adinen arteko dibertsitatea lantzeko zehazki. Toki eta kultura berriak ezagutu, lagunekin egon eta azken finean, denbora librean gozatu nahi duten jendea erakarri nahi dugu gure hotelera. Batez ere lurralde exotikoak maite eta ezagutzeko grina duten gazteen beharrak asetzeko helburuarekin sortu dugu gure enpresa.

Lehenik eta behin, aipagarria da gure proiektuak ez duela adin-tarte mugaturik. Hau da, gure hotelera edozein adineko jendea sartu daiteke, hau da, merkatu masibora zuzendutako proiektu bat sortu dugu. Badakigu, bezeroak negozio ereduaren funtsa direla eta haiek gabe enpresa ez doala aurrera, horregatik, ezaugarri berak dituzten bezero talde bakar batentzat gure proiektua ondo antolatzea komeni zaigu eta haietara moldatzeko ahaleginak egingo ditugu. Baina ideia berri bat otu zaigu. Ideia honakoa da; berriro ere gazteekiko garrantzia azpimarratuz, egun berezi batzuk antolatuko ditugu, non egun horietan soilik 18-30 urte bitarte dituztenak edukiko duten aukera hotelera joateko. Hau da, gure nahietako bat gazteen arteko harreman berriak sortzea denez, egun jakin horietan adin-tarte horretara mugatuko gara, harremantze hori bermatzeko eta gazteek haientzat aisialdi gune berri eta desberdin bat. Batez ere, egun hauek jaiegunak, etab. izango dira eta garrantzitsua izango da guretzat hau egitea detektatu dugun beharra asetzeko.

Populazioaren eta gure hotelera etorriko direnen ezaugarriak hurrengo hauek dira: dirurik ez dutenak, hau da, maila sozioekonomiko baxua dutenak; Euskal Herritik ez ateratzea bilatzen dutenak bizi dugun pandemia egoeraren ondorioz segurtasuna bermatzeko; aisialdirako espazio gutxi dituztenak edota sozializatzea gustatzen zaienak. Horregatik, gure proiektua haientzako oso baliagarria izango da, izan ere, Euskal Herriko



ostiko bidaiari

pertsona desberdinak ezagutzeko aukera izango dute eta jende berria ezagutzeko, kultura berriak ikasiz eta haietan murgilduz, pertsonalki hazteko ere. Badakigu, gure bezero izan daitezkeen pertsona guztiek ez dituztela ezaugarri berak baina bai antzekoak, beraz, denentzat moldatuta egongo da proiektu hau. Azken finean, ostalari guztiok dute aukera esperientzia hau bizitzeko eta esperientzia berriak bizitzeko hainbat pertsona desberdinekin. Horrez gain, gure hoteleko bezero horiek bidai labur bat prestatu nahi badute urrutira joan gabe, baina aldi berean beste lurralde batean daudela sentituz, gure hotelera etortzea aukera paregabea da.

Laburtuz, gure enpresa aurretik aipatutako ezaugarriak dituzten pertsonentzat bideratuta dago, normalean ezaugarri hauek gazteek dituztenez, haiengan jarri dugu fokoa eta haientzat ahalik eta hoberen prestatuko dugu dena, dena den, edonor etor daiteke.